

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea hiri antolamendurako plan orokorreko eraikuntza-ordenantzaren aldaketa puntualari

Udal honek, 2022ko irailaren 29an egindako osoko ohiko bilkuran, hau erabaki zuen:

Hasierako onespena ematea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari, zeina Aguraingo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 3.30 artikulua aldatzean baitatza. Artikulu horrek itxituren nahitaezkotasuna eta, hartara igorritik, haien tratamendu estetikoaren baldintzak arautzen ditu, eta ingurumen eta paisaia-inpaktu kaltegarriak minimizatzen dituzten ekintzak egiteko Udalaren ahalmena ere ezartzen du. Artikulu horretan honako testu hau sartzea proposatzen du:

Hondakinak konpondu, birziklatu eta kudeatzeko jarduera duten industria-lurzatietarako, eta ingurumen arloko organoak emisioak mugatzeko ekintza zuzentzaileak eskatzen dituen jardueretarako, ondoko baldintza hauek ezartzen dira:

Biltegitratutako materialen babesa erregulatzeko eta errazteko, itxitura-hormen altuera handitu ahal izango da perimetro osoan, gehienez 4,00 metroko altuerara arte.

Lurzatiak bide publikora ematen duen aurrealdean ezin daiteke jarri silorik edo biltegitirik; gainerako mugetan, siloak instalatu ahal izango dira.

Horrelako jardueretan aire zabaleko biltegitratzeak izan dezakeen eragin kaltegarria galarazteko, teilape arinak eta ez-iraunkorrek egokitu behar dira, pilotutako materiala behar den bezala estaltzeko. Haien neurriak, gehienez ere, 8,00 metroko altuera (lurzatiaren ertzean) eta 9,50 metroko altuera (lurzatiaren barruan) izango dira, eta oinplanoan gehienez 12 metroko sakonera.

Teilape horiek itxiak izan beharko dira kanpoko ertzean, berdegune edo hornidura-gune bezala kalifikatutako eremuekin muga egiten baldin badu lurzatiak; eta beste industria-lurzati batzuekiko mugetan ere itxiak izan daitezke (betiere lurzati mugakidearen jabeak baimena ematen badu). Teilapearen perimetroa ezingo da itxi, horrek bide publikoekin muga egiten baldin badu.

Estaltzeko materiala arina izango da, metalezko xaflak edo plastikozko panelak,itsuak edo zeharrargiak bezalako elementuekin. Itxitura-elementuak estalkiak estaltzeko elementuen antzekoak izango dira, eta lamak ere erabiltzeko aukera ematen dutenak. Ezin izango da material astunik erabili (hormigoia, fabrikak...).

Inola ere ez da baimenduko birziklatzeko eta birziklatutako materiala estalkirik gabe biltegitratzea.

Estalki arinek hartzen duten azalera ez da inoiz ere lurzatiaren ehuneko 20 baino handiagoa izango.

Elementu horiek ez dira konputagarriak izango ezarritako eraikuntza-aprobetxamenduaren mugen ondorioetarako.

Udalak, horma eta itxitura perimetralen inpaktua gutxitzeko, neurriak hartzeko agindu ahal izango du (zuhaitzak, lur mugimenduak, etab.).

Baita ere, 30 eguneko epean jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua araberaz, zeinean toki ordenantzak onartzeko prozedura arautzen baita. Adierazitako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izandako erabakia behin betikotzat emango da.

Agurain, 2022ko irailaren 30a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES